



## 7) BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroarekin izango dugun harreman mota **automatizatua** izango da; hau da, aplikazioaren bidez izango dugu harremana. Bertan bezeroak dituen **arazoak** edo eskaintzen dituen **hobekuntzak** jasoko dira txat baten bitartez, eta guk aplikazioan arazo hauek daudela ziurtatu ostean aldaketak egingo genituzke, bezeroen beharren arabera.



Guk bezeroak sortzen duen profilarakin bat datorren beste hainbat profil gomendatuko diogu, bere interesekin bat egiten duten pertsonen **profilak eskugarri** jarritz. Hori egiteko gure aplikazioan bezeroak zenbait eskaera eta hobekuntza proposatzeko atala jarriko dugu, eta bertan hainbat gauza egiteko aukera izango dute hala nola:

Bezeroek zerbitzuak edo hauen inguruko informazioa eskatzeko erabili ahalko dute aplikazioan eskugarri izango duten txat espezifiko bat, eta edozein arazo teknikoren aurrean aholkuak eskatzea erraztuko du aplikazioaren atal honek. Gainera, egin nahi duten transakzioak burutzeko ere erabilgarria izango da, horrela askoz errazagoa eta erosoagoa izan daitekeelako prozesu hori.

Horretaz gain bezeroek egiten dituzten **galdera ohikoak** eta beraien **erantzunak** ikusgai egongo dira aplikazioan, bezero berriek izan dezaketen galdera horien erantzunak eskugarri izan dezaten.

Txat bidezko harremanak sortu eta mantentzeak hainbat abantailak izan ditzake, adibidez, txat inteligenteak erabili daitezke bezeroen galderak erantzuteko edo informazioa emateko era automatiko batean. Hala ere, komunikazio zuzena ere izan daiteke, bezeroarekin harreman pertsonalak ezarriz.

Aplikazioa aurrera ateratzeko zenbait **profil ezberdin dituzten pertsonekin kontaktuan jarri gara**; aplikazioan eta orientazio prozesuan parte hartzera prest daudenak. Hauen artean unibertsitateko gradua amaitzen ari diren ikasleak, gradua hasi berri duten ikasleak, eta goi mailako ziklo ezberdinak egiten ari diren ikasleak ere aurkeztu dira bolondres, aplikazioari hasiera eman eta beraien perfilak sortzeko.

Adibidez, Ander EHU-ko ikasle bat elektronika ikasten ari dena bere bigarren urtean, interesa du aplikazioan parte hartzeko eta jendeari ikasten duena azaldu eta erakusteko. Horrela, diru laguntza bat jaso eta bere pisu berria ordaindu ahalko duelako.



Bestetik, Maialen Urkiarekin kontaktatu dugu ( 17 urteko nerabea, batxilergoko 2. mailan dagoena). Maialenek argi du osasun zientzietan aritu nahi duela. Hala ere, oso estresatuta sentitzen da, ez baitaki zein gradu aukeratu. Gure negozio-idea azaldu diogu, eta benetan oso lagungarria izango litzaiokeela esan digu.

Ziur aski beste milaka ikasle egongo dira Ander eta Maialenen egoera berean eta horregatik da gure zeregina ezagutzera ematea. Hori dela eta, aurretik azaldutako metodoez gain (publizitatea, sare sozialak...), uste dugu ideia ona izango litzatekeela etorkizunean eskola bakoitzeko **orientatzaileek** aplikazio hau gomendatuko balute. Uste baitugu ikasleen eskubideetan sartzen dela jakitea beste aukera batzuk dituztela eta ez daudela bakarrik beren bizitzako une honetan

